

OCW

IKASTEKO MATERIALAK

ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA HEZKUNTZAN

1. GAIA. HEZKUNTZA-ORIENTAZIOAREN SARRERA

- 1.1. Orientazioaren historia eta esparruak**
- 1.2. Orientazio-mailak hezkuntza-orientazioan**
- 1.3. Hezkuntza-orientazioarekin loturiko baliabide garrantzitsuak**
- 1.4. Eskola-familia-komunitatearen harremanak**
- 1.5. Erreferentzia bibliografikoak**

IKASKETA-EMAITZAK HAUEK IZANGO DIRA:

- 1. Orientazioaren historia laburra ikusiko da**
- 2. Hezkuntza-orientazioaren azpisistemak ikusiko dira**
- 3. Hezkuntza-orientazioan dauden orientazio-mailak ezagutuko dira**
- 4. Baliabide garrantzitsuak ikusiko dira eta batzuetan harpidetza egingo da**

1.1. Orientazioaren historia laburra eta hiru azpisistemak

Orientazioaren hastapenak Estatu Batuetan XX. mendearen hasieran daude, gazteak orientaziorik gabe ikusita, Frank Parsons 1902. urtean erantzunak ematen hasi zenean. Europan ere gertaera bera ikusirik, lehen orientazio zerbitzuak jarri ziren martxan Belgikan eta Alemanian. Espainian ere orientazioa, garai hartan hasi zen, Manuel Bartolomé Cossío, Museo Pedagógico Nacional sortu ondoren. Beranduxeago, 1912. urtean, Lanbide Orientazioaren zerbitzuak sortu ziren, bereziki Madrilén eta Bartzelonan, *Institut d'Orientació Professional* deiturikoak. Espainiako orientazioaren historian beste memento esanguratsuenetako bat, 1956. urtean Lanbide Unibertsitateen edo *Universidades Laborales* deiturikoen sorrera izan zen; hauek, gizarte- talde behartsuenei laguntzeko asmoz jarri ziren martxan. Geroago, 1970.eko hamarkadan sortu ziren lehen *Orientación e Información de Empleo* (COIE deiturikoak) eta baita unibertsitateetako orientazio zerbitzuak. Garai honetan sortu zen gaur egun dugun orientatzailearen profila, Lehen Hezkuntzako zentroetan *Servicios Provinciales de Orientación Escolar y Vocacional* (SOEV) delakoen bidez [1, 2] 1987. urtean sortu zituen Espainiako Ministerioak *Proyectos de Apoyo Psicopedagógico y Orientación Educativa en Centros de de E.G.B.* (PIPOES/SAPOES deiturikoak), modu esperimentalean erreforman ari ziren zentro publikoetan [3].

90. hamarkadatik aurrera orientazioa hiru estrukturetan banatzen dela esan dezakegu, Espainia mailan [2], hala nola, hezkuntza sistemaren barruan ematen dena (lehen eta bigarren hezkuntzan), unibertsitateetan ematen dena eta testuinguru sozio-laboralean eta lanbiderako formakuntzan ematen dena (ikus 1. Taula).

1.Taula. Orientazioaren azpiestruktura Espainia mailan
(Sánchezen taulatik moldatuta) [3]

AZPI-ESTRUKTURAK	NOLA ORIENTATZEN DA?	ORIENTATZAILE PROFILA
<p>Hezkuntza Sisteman</p>	<p>-Tutoretza, gelan egiten da</p> <p>-Orientazio-zerbitzuak daude ikastetxeetan</p> <p>- Berritzeguneak daude (Espainia mailan, <i>equipos del sector</i> deiturikoak)</p> <p>-Formakuntzaren eta Lanbide orientazioaren bidez (F.O.L.)</p>	<p>Psikologoak, pedagogoak eta/edo psikopedagogoak</p>
<p>Unibertsitate testuinguruan</p>	<p>-Orientazioa zerbitzuen bidez (izen desberdina dute Unibertsitateen arabera). EHU-n adibidez, Ikasleentzat Argibide Zerbitzua (IAZ) dago (ikus https://labur.eus/G2IZO)</p> <p>-Badaude baita praktiketako teknikariak, mentoretzak, etab.</p> <p>-Unibertsitate bakoitzak zehazten ditu bere ikasleak tutorizatzeko moduak. Begira adibidez EHU-k duen 'mentoring programa' (ikus https://labur.eus/TUljq)</p>	<p>% 50 psikologoak, pedagogoak, psikopedagogoak eta beste % 50 beste titulazio batzuk</p>
<p>Testuinguru sozio-laboralean</p>	<p>-Laneko zerbitzu publikoak (<i>Lanbide</i> adibidez, ikus https://labur.eus/BDedO)</p> <p><i>Enplegugunea</i> Euskal Herriko Unibertsitatean (ikus http://www.ehu.eus/enplegugunea/laneskaintzak/basico/basico.php?i=eus)</p> <p>Zeregin horretan diharduten elkarteak (<i>Sartu</i> adibidez, ikus http://alava.sartu.net/eu/enplegu/)</p>	<p>Titulazio anitzak dira. Terminologia Espainia mailan hau da:</p> <p>-<i>ORIENTADOR PROFESIONAL PARA LA INSERCIÓN</i> (goimailako titulazioa, 24120087 kodea).</p> <p>- <i>TÉCNICO MEDIO EN ORIENTACION PROFESIONAL</i>, (diplomatura bati/unibertsitateko lehen ziklo bati lotua, 29130133 kodea).</p>

Hezkuntza sistemari dagokionez, zenbait lege oso lagungarri izan dira orientazioan, hala nola, 1970. urteko Hezkuntzaren Legea, 1982.eko Talde Multiprofesionalen 1982ko Irailaren 9ko Ordena, 8/1985eko Lege Organikoa (LODE), 1990. urteko LOGSE eta 2002ko *Ley de las Cualificaciones y la Formación Profesional* [3].

1.2. Orientazio mailak hezkuntza-orientazioan

Hezkuntza-orientazioa prozesu bat da, irakasleria osoari dagokiona eta familiarekin elkarlanean egiten dena, azken helburutzat ikasleriaren garapen integrala duela. Esku hartze maila desberdinetan garatzen da, hau da, tutoretzaren bidez, zentroko orientazio taldearen edo sailaren bidez eta profesional espezializatuen bidez. Hezkuntza-orientazioaren plangintza orientazio eta tutoretza planaren bidez gauzatzen da, bertan sartuko direlarik aurrera eramango diren programak eta jarduerak, Junta de Andaluciako dokumentuaren arabera [4].

Jarraian ikusiko ditugu hezkuntza-orientazioaren hiru maila hauek, Hezkuntza eta Zientziaren Ministerioak (1989) bere liburu zurian azaltzen dituenak: gela mailakoa, zentro mailakoa eta erkidego bakoitzean izen desberdinak dituzten kanpo-laguntza taldeak (*Equipos de Orientación Educativa y Psicopedagógica* edo E.O.E.P.). Ikusi dezagun maila bakoitzean orientazioa nola bideratzen den, horretarako Requena egilearen argitalpena erabiliko dugularik [3].


Gela mailan: Orientazioa, ikaslearen eskubidea da eta bereziki tutoretza-funtzioaren bidez gauzatzen da. Era berean, tutoretza eta ikasleen orientazioa, irakasleriaren irakaskuntza-funtzioaren alderdi bat da. Ikastetxeak zehazten du zein tutore izango duen talde bakoitzak. Zenbait funtzio ditu tutoreak, hala nola, tutoretza-plana aurrera eramatea, ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, ikasleen ikasketa-zailtasunak artatzea, ikasleen integrazioa ahalbidetzea, orientazioa taldearekin kolaboratzea, etab.

Zentro mailan: Orientazioaren erantzukizuna ez zaio soilik orientatzaileari ezarri behar baizik eta hezkuntza-zentroari, irakasle taldeari eta zuzendaritza-organoei. Zentro bakoitzak antolatzen eta programatzen ditu bere funtzio orientatzaileak eta horretarako sortzen dituzte Orientazio sailak. Zentroen funtzio orientatzaileak dira, besteak beste, hezkuntza-proiektua eta curriculumekoa diseinatzea eta gauzatzeaz arduratzea, ikasleria guztiaren tutoretza pertsonalizatua bermatzea eta behar dutenei errefortzu psiko-pedagogikoa ematea, etab. Zuzendaritzak animazio lana egingo du, baldintzak sortuko ditu eta erraztasunak emango ditu zentroan orientazio-programak eta esku hartze psiko-pedagogikoak aurrera eramateko. Orientazio sailari dagokionez, honek koordinatzen du orientazioa, baina funtzio hau partekatua izaten da, ikastetxearen artean, orientazio-sailaren artean eta irakasle bakoitzaren artean (tutoretza funtzioaren bidez). Bere estruktura aldakorra izaten da, zentroaren ikaskuntza mailaren arabera, tamainaren arabera eta ikasleriak aurkeztu ahal duen zailtasunen muntaren

arabera. Orientazio sailaren burua, pedagogo, psikologoa eta/edo psikopedagogo izaten da. Sail honen funtzioak dira ondoko hauek, besteak beste:

- Hezkuntza-orientazioa eta psikopedagogikoaren proposamena antolatzea, tutoretza-plana eta lanbidearena proposatzea, koordinazio pedagogikoaren batzordean eztabaidatzeko eta ondoren zentroaren proiektuan txertatzeko
- Orientazio akademiko eta profesionala eta tutoretza-plana garatzen laguntzea eta ondoren bere funtzionamendua Eskola Kontseiluari adieraztea, memoria baten bidez
- Ikasleriaren hezkuntza-orientazio psikopedagogikoa eta profesionala koordinatzea (bereziki ziklo edo etapa aldaketak eta formakuntza-aukerak edo profesionalak)
- Premia bereziak dituzten ikasleen egokitze curricularrak egitea eta koordinazio pedagogikoko batzordera igotzea
- Premia bereziak dituztenen egokitzapen curricularrak egiteko irizpideak eta prozedurak proposatzea
- Aldez aurreko ebaluazio psikopedagogikoa egitea
- Irakasleriarekin ikasleen ikasteko zailtasunen prebentzioan eta detekzioan laguntzea, arazoak erakusten dituztenekin curriculum ariketen planifikazioan eta gauzatzean

Orientazio sailaren arduradun nagusia orientatzailea izaten da eta bere funtzioak zehaztuta daude *Orientasare* Berritzegune Nagusiko *sitesean*; zerrendatuta ageri dira eta irudi batetan laburbilduta [5].



1. irudia. *Orientasaren* agertzen den irudia moldatuta

1. irudian ikusi daitekeenez, orientatzailearen funtzioak dira, aniztasuna eta inklusioa, orientazioa eta tutoretza, elkarbizitza, norbanakoari arreta ematea, barne-aholkularitza, kanpo-koordinazioa eta eskolak ematea.

Kanpo-laguntza taldeen mailan: Euskadin *Berritzegune* izenez ezagutzen dira [6] eta Nafarroan 2019. urtetik, *Centro de Recursos Específicos de Navarra* (NHBBZ/CREENA) izenez [7].

Euskadin, kanpo-laguntza talde bezala, Berritzeguneak daude. Hezkuntza Berritzatzearen webgunean [6] esaten denez, "Laguntza Zerbitzu gisa eratuak, hezkuntzaren berrikuntzarako eta hobekuntzarako erabiliko diren tresnak dira. Beraien jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe guztiak izango dira, sare publikokoak nahiz pribatukoak" (lehen paragrafoa). Webgune horretan bertan ikus daiteke Euskadiko Berritzeguneak non dauden. Laguntza zerbitzu hauen egitura, antolaketa eta funtzionamendua 40/2009 Dekretuak, otsailaren 17koak arautzen du [7]. Dekretuak dioenez, "Zonako Berritzeguneek" eta "Berritzegune Nagusiak" osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen sarea. Dekretuaren II. Kapituluaren ageri dira xedeak eta eginkizunak (1048. orr.) Hona hemen, hitzez hitz:

1.- Aholkularitza-arloan:

- a) Alderdi didaktiko orokorreari eta espezifikokoagoei buruzko aholkuak ematea eskualdeko ikastetxeei eta irakasleei.
- b) Irakasleek hainbat alorretan egin ditzaketen ekarpenak aztertzea eta bideratzea (curriculum, alor didaktikoa, teknologia berriak, hizkuntza-normalizazioa...).
- c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatzen dituen hezkuntza-berrikuntzen lehentasunezko ildoetako buruzko aholkularitza ematea ikastetxeei eta irakasleei.
- d) Baliabide pedagogikoen eta material didaktikoen dokumentazio- eta mailegu-zentro gisa jardutea. Ikastetxeek esparru horretan egindako eskariak kudeatu eta bideratuko ditu, gainera.

2.- Prestakuntza-arloan:

- a) Irakasleen prestakuntzarako eskualde-planen gertatze-lanetan eta kudeaketan laguntzea.
- b) Ikastetxeko prestakuntza-proiektuak planifikatzeko, aholkatzeko eta ebaluatzeko lanetan laguntzea.

- c) Irakasleen prestakuntza-eskaerak bideratzea.
- d) Irakasleak prestatzea.
- e) Ikastetxeetako proiektuetatik sortutako eskariei erantzuteko, prestakuntza ematea eta hura kudeatzea.

3.- Berrikuntzan, esperimentazioan eta ikerketan:

- a) Premia pedagogikoak aztertzen eta gabezia horiek konpontzen laguntzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.
- b) Aholkuak ematea hezkuntza-premia berezidun ikasleak dituzten ikastetxeei eta haien irakasleei, eta bere gain hartzea ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna antolatzeakoak, eta hura garatzeko aginduek diziplina anitzeko profesional-taldeei esleitzen dizkien eginkizunak.
- c) Sailak edo ikastetxeek beraiek sustatutako berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuen plangintza, aholkularitza eta ebaluazioa laguntzea.
- d) Eskola-materiala eta curriculumeko materiala aztertzea eta ebaluatzea.
- e) Irakaskuntzako esperientzien trukaketak sustatzea.
- f) Hezkuntza-sisteman hautemandako premien ondorioz sortutako ekintza eta programa guztiak sustatzea.
- g) Beste erakunde batzuekin koordinatuta, era guztietako hezkuntza-jarduerak sustatzea.
- h) Zonaldeak hezkuntza-premia berezien alorrean dituen baliabideak kudeatzea.

Nafarroan, kanpo-laguntza talde bezala, *Centro de Recursos Específicos de Navarra* (CREENA) daude orain (2019/Dekretu Forala) [8] baina orain arte Nafarroako Hezkuntza Bereziko baliabide Zentroa (NHBBZ) deitu izan zaie, gaztelaniaz, *Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra* (CREENA). Dekretu Foral honetan esaten denez, hasiera batean, 1993. urtean, hezkuntza komunitatearen laguntza espezializaturako sortu ziren, ikasle nafarren hezkuntza behar berezien antolaketan eta koordinazioan jarduteko.

Dekretuak dionez, klabeak izan dira inklusioaren garapenean, New York-eko 2006ko ezgaitasunaren hitzarmena eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 12/2018ko, ekainaren 14ko Lege Forala. NHBBZ/CREENaren esku hartzea, zentroek dituzten ohiko baliabideen osagarria izango da; era berean, kasu guztietan formatzailea izan behar da eta zentroen autonomia indartzen duena, hauek ordezkatu gabe. Bere helburua hau da: ikasleriaren aniztasunari hezkuntza erantzun hobea ematea, hezkuntzaren testuinguruan ekintza inklusiboak sustatuz. Sustapen hau, hezkuntza komunitateko eragile guztiei zuzenduriko aholkularitzaren bidez, formakuntza ekintzen bidez, proiektu berritzaileen difusioaren eta promozioaren bidez eta aniztasunaren arretari dagozkion zientziaren aurrerapenekin gauzatuko da. NHBBZ/CREENA Nafarroako Hezkuntza sailaren menpe dago, ikus webgunean, eskuineko aldean [9].

1.3. Hezkuntza-Orientazioarekin loturiko erreferentzia garrantzitsuak

Jarraian, Hezkuntza-Orientaziorako zenbait erreferentzia garrantzitsu aurkeztuko dira. Batzuk hiztegiak dira, beste batzuk jarraitzea komeni diren webguneak dira eta azkenik, aldizkariak. Estekak txertatuko dira taulan bertan (eta ez erreferentzia bibliografikoetan). (Ikus 2. Taula)

2.Taula. Orientazioaren erreferentzia garrantzitsuak

HIZTEGIAK	ESTEKAK
Hezkuntzako hiztegia (Nafarroako Gobernua)	http://hiztegi.educacion.navarra.es/
Zenbait hiztegi interesgarri: Psikopatologia hiztegia, Etorikinentzako oinarrizko hiztegia, e.a.(Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)	http://www.uema.eus/udalenzako-zerbitzuak/euskara-baliabideak/
JARRAITZEKO WEBGUNEAK	ESTEKAK
COPOE-ren albisteak (La Confederación de Organizaciones de Psicopedagogía y Orientación de España)	https://www.copoe.org/noticias
Apside (Euskadiko Psikopedagogia elkarte)	http://www.psicopedagogia-euskadi.org/es/noticias-es/noticias-apside

2. Taularen jarraipena

JARRAITZEKO WEBGUNEAK	ESTEKAK
Orientasare (Berritzegune Nagusiaren sitesa).	https://sites.google.com/site/orientasare/ (Begiratu ezkerreko aldean dauden gaiak (tutoretza, eskola inklusiboa, laguntza bereziak, etab.)
Orientatzeko helbide interesgarriak (Copoek aholkatuta)	https://www.copoe.org/enlaces
Orientared	Orientazio psikopedagogikora bideratutako web orria, orientatzaile batek zuzendua. http://www.orientared.com/
Iparrorratza Orientazio Zerbitzua (Udako Euskal Unibertsitatea)	http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/pedagogia/iparrorratza-orientazio-zerbitzua-aurkezpena
ALDIZKARIAK	ESTEKA ETA EZAUGARRIAK
Hik Hasi aldizkaria	http://www.hikhasi.eus/
Eskola aldizkaria	https://eskola.ehiqe.eus/es/ Eskola publikoien aldizkaria
Ikastola aldizkaria	http://aldizkaria.ikastola.eus/orientazioa Ikastolen aldizkaria
Esteka aldizkaria	http://www.psicopedagogia-euskadi.org/eu/elkartea/esteka-apsideren-aldizkaria Apside elkartearen aldizkaria
REOP (Revista Española De Orientación y Psicopedagogía)	https://www2.uned.es/reop/ Asociación Española de Orientación y Psicopedagogía (AEOP) elkartearen aldizkaria

2. Taularen jarraipena

ALDIZKARIAK	ESTEKA ETA EZAUGARRIAK
<p>Participación educativa</p>	<p>https://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/cee/publicaciones/revista-participacion-educativa.html</p> <p>-Participación Educativa aldizkaria, urtean behin argitaratzen du Consejo Escolar del Estadok.</p> <p>Ikusi adibidez zenbaki hauek (ezkerreko aldean: https://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/cee/publicaciones/revista-participacion-educativa/sumario-n8.html)</p> <p>2018. urtekoa: <i>Participación, educación emocional y convivencia</i>.</p> <p>2015. urtekoa: <i>Conocimiento, políticas y prácticas educativas</i>.</p> <p>2014. urtekoa (ekaina): <i>Escuelas de éxito</i>.</p>
<p>Educar y Orientar</p>	<p>- Copoeren aldizkaria (Confederación de Organizaciones de Psicopedagogía y Orientación de España)</p> <p>-(2022ko otsailaren 7ra arte 15 ale daude argitaratuta: https://www.copoe.org/asociaciones-de-copoe/las-revistas-de-nuestras-asociaciones/tag/Revista%20de%20COPOE</p>

1.4. Eskola-familia-komunitatearen harremanak

Ikasle batek testuinguru desberdinetan parte-hartzen du, hain zuzen ere, Bronfenbrenner egilearen (1917-2005) eredu ekologikoan deskribatzen den, mikrosisteman, mesosisteman, exosisteman, makrosisteman eta kronosisteman. Honela, mikrosisteman egongo lirateke, familia, eskola, lagunak eta osasun zerbitzuak, besteak beste. Mesosistemak, konexioan jarriko lituzke mikrosistemak, adibidez, eskola eta osasun zerbitzuak. Exosisteman, sistema sozial zabalagoa izanik, adibidez, gurasoen ordutegiak nola eragiten duten ikaslearengan aztertu daiteke. Makrosisteman daude balio kulturalak eta legeak. Azkenik, kronosistema denboraren eraginak aztertzen dira. Mikrosisteman zentratzen bagara, garrantzitsua da arlo desberdinen artean aliantzak egotea, hau da, familiaren, eskolaren eta komunitatearen artean harreman estuak egotea [10].

Jarraian, batetik, familiaren eta eskolaren artean aliantzak egotearen onurak deskribatuko dira, bestetik, ikastetxeek orientazio zerbitzutik familiekin duten harremanetan aholkatu ditzaketen estekak erakutsiko dira eta azkenik, komunitateek eta ikastetxeek duten parte-hartzeko moduak ikusiko dira.

Aliantzaren onurak

"Munduko hainbat tokitan egindako ikerketen arabera, gurasoek eta eskolako langileak elkarrekin aritzeak era guztietako emaitzak hobetzen ditu. Horregatik, bien arteko erlazioa eta kolaborazioa zaindu eta sustatu beharrekoak dira" [11] (Hik Hasi, 2. paragrafoa). Artikuluan esaten denez, aliantzek onurak dituzte, ikasleetan eta familietan. Honela, ikasleen errendimenduan eta egokitzean, motibazioan e.a. Familiek, aliantzen ondorioz ikastetxea hobeto ezagutzen dute eta eskolarekiko jarrera positiboagoak garatzen dituzte. Irakasleetan ere antzematen dira onurak, Romagnoli & Gallardoren arabera [10], irakasleek hobeto ezagutzen dituzte bai ikasleak eta bai familien beharrak eta igurikimenak; era horretan, irakasleek aukera gehiago dute behar hauek artatzeko. Ondoren, ikasleek, familiek eta irakasleek jasotzen dituzten onurak zerrendatzen dira taula batean, Romagnoli & Gallardoren artikulutik moldatuta [10] (ikus 3. Taula).

3. Taula. Ikastetxe-familien arteko aliantzen ondorioak

Aliantzen onurak ikaslerian, familietan eta irakaslerian	
Ikaslerian	<ul style="list-style-type: none"> -Aliantzek emaitza akademikoak hobetzen dituzte -Konfliktuak murrizten dituzte -Eskolako zereginak hobeto erabiltzen dituzte -Ikasketarekiko jarrera positiboa garatzen dute -Aurrerapenaren kontzientzia hartzen dute eta baita nota onak lortzeko edo eusteko beharrezko ekintzenak -Gurasoek/tutoreek eskolek parte hartzen dutenean, gurasoez harro sentitzen dira ikasleak
Familietan	<ul style="list-style-type: none"> -Hezkuntzarekiko konpromisoa handitzen dute -Seme-alabekiko harremana hobetzen dute -Zereginak hobeto gainbegiratzen dituzte eta aurrerapenak hobeto ikusten dituzte -Autoestimua eta autoefikazia sentimendua handitzen da eurengan -Balioetsiak sentitzen dira eta eskolaren partaide izatearen sentsazioa handitzen da -Hobeto ulertzen dute irakasleen lana; baita, eskolako-politika eta ikastetxean dauden programak
Irakaslerian	<ul style="list-style-type: none"> -Euren ikasleak hobeto ezagutzeko tresna gehiago daukate -Gurasoen laguntza zuzenarekin, maximizatu egiten dira baliabide materialak eta denbora -Gurasoen beharrak eta igurikimenak hobeto ezagutzen dira; horrela, hobeto artatu daitezke beharrak -Gurasoak hobeto ulertzen dituzte eta aliantza sinergiko bat sortzen da eurekin, ikasleen onerako -Irakasleak trebeagoak egiten dira gurasoei eskaerak egiterakoan

Aliantza hau bideratzeko interesgarria izan daiteke eskolan konfidentzialtasuna lantzea eta konfidentzialtasunaren protokoloak ezartzea. Praktika ona dela dio FEVAS Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeen euskal elkarteak. Jarraibide deontologikoaren puntuaren ikusiko da dokumentu hau [12]

Orientazio zerbitzutik ikastetxeek familiekin duten harremanak

Orientazio zerbitzutik hainbat modutan hobetu daiteke familiekiko harremana. Lehenik eta behin, Epstein egileak [13] proposaturiko parte hartze mailak azalduko dira. Ondoren, informazio eta komunikazio teknologien (IKT) erabileraren bidez harremanak sustatzeari buruz arituko gara eta jarraian, ikasturte haserako bileretan ikasgaien osagarri izan daitezkeen estekak aholkatuko dira.

Epsteinen ereduaz azpimarratzen da [13] dokumentuan. Egile honen arabera, gurasotasunaren inplikazioa 6 modutakoa izan daiteke edo 6 modalitateen arabera egiten da. Eredu hau erreferentzia markotzat erabiltzen da hezitzaileei familia-eskolaren lankidetzan zubiak eraikitzeko. Sei modalitateak hauexek dira: a) Zaintza, b) komunikazioa, c) boluntario gisa

aritzea, d) etxean eginiko ikasketa, e) erabakiak hartzea eta f) komunitatearekin lankidetzatza (ikus 4. Taula Epsteinen ereduaren moldaketa).

4. Taula. Epsteinen gurasoen inplikazioa eskolan 6 modalitatetan zehar

Modalitatea	Zer da?
Zaintza	Etxean giro hobea sortzen laguntzea edo ikasle hobeak izateko etxean baldintza onak jartzen laguntzea
Komunikazioa	Familia-eskola eta eskola-familiaren arteko komunikazio eraginkorrerako esku hartzeak (eskolako ikasgaiei buruz, haurren aurrerapausoei buruz...)
Boluntario gisa aritzea	Familiak boluntario bezala aritzeko esku hartzeak
Etxean eginiko ikasketa	Etxe-ko-lanekin eta aukerak egiten laguntzeko familiei ideiak eta informazioa ematearen esku-hartzea
Erabakiak hartzea	Familiak guraso-eskoletan eta eskola kontseiluetan parte hartzeko esku hartzeak
Komunitatearekin Lankidetzatza	Komunitateak eskaintzen dituen baliabideak eta zerbitzuak identifikatzea eta integratzea, eskolako programak indartzeko eta ikasleen garapena eta ikasketa indartzeko

[14] Grant egilearen arabera, ikus-entzunezko komunikabideak (IKT) euskarri garrantzitsu bat izan daitezke familiaren eta eskolaren harremanean. Egile honek zenbait aholku ematen ditu IKTak egoki erabiltzeko. Batetik, jakin beharra dago familiek Internetera sarbidea duten, bestetik, jakin beharra dago baita familiek IKTekiko konfiantza eta igurikimenak zein diren; bestalde, ikastetxearen webgunea eguneratuta egotea eta bere erabilera erraza edo intuitiboa izatea garrantzitsua da; gainera, ikasleen segurtasunari eta babesaren legea kontuan hartu behar da. Guzti honetaz gainera, kontuan izan behar da ikastetxearen webguneak zein informazioa zintzilikatzen duen. Informazio mota bat ikasleen ikaskuntzarako jartzen dena izango da; beste informazio mota bat ikasleen familien esku jartzen dena izango da, adibidez, txostenak, bertaratze-fitxak eta ebaluazioa. Beste informazio mota interesgarri bat seme-alaben lanak eskura izatea izan daiteke.

Familiak ikasleen ikaskuntza-prozesuan inplikatzen diren estrategia bat izan daiteke, ikasturte hasieran familiekin egiten den lehen bileran baliabide irekiak proposatzea, ikasgaien osagarri izan daitezkeenak. Jarraian dituzue baliabide batzuk, estekak bertan txertatuta daudelarik (ikus 5. Taula).

5. Taula. Baliabide irekien taula

	Zer da?	Esteka
EDIA (Cedec)	<p><i>EDIAk</i> Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako hezkuntza edukien bankua eskaintzen du.</p> <p>Curriculumeko erreferentzia diren hezkuntza baliabide irekiak dira eta metodologia aktiboekin eta gaitasun digitalaren sustapena ikasgelan sustatzeko proposamenak eskaintzen dituzte.</p>	https://cedec.intef.es/recursos/
EUSKO JAURLARITZAREN ESKOLA 2.0 BALIABIDEAK:	<p><i>Berritzegune G-04-k (Ordiziak)</i> eskaintzen dituen baliabideak dira</p>	https://elearning3.hezkuntza.net/013159/course/view.php?id=126
AGREGA2	<p><i>Agrega2</i> proiektua Espainiako hezkuntza administrazioetan martxan dagoen plataforma teknologikoa da, elkarren artean konektatutako eskualde-nodoen bidez (<i>Agrega2</i> hezkuntza objektu digitalen biltegi federazioa). Zerbitzari sare honek milaka hezkuntza baliabide biltzen ditu, behar bezala etiketatuta eta paketatuta.</p>	http://www.agrega2.es/web/

Bestalde, familiek guraso-eskolen bidez izaten dute eskolarekin harreman handia. Ikasleen Guraso Elkarteak (IGE) [15] (38. orria) Europako kide diren estatu guztietan daude eta federazio eta konfederaziotan antolatzen dira. Gurasoen parte hartzea boluntarioa izaten da askotan ikastetxeetako

zuzendaritzatik edo arduradunetatik bultzatzen da elkarte eta bere ekintzak. Antolatzen dituzten ekintzak izaten dira, ikasleentzat irteerak, kultur-ekitaldia eta aisialdiko jarduerak antolatzea, besteak beste. Herrialde batzuetan, formakuntza egiten dute gurasoekin eta batzuetan dirua lortzen dituzte eskolarentzat. Hezkuntza-autoritateekin erabaki eta eztabaidetan parte hartzen dute baina gehienetan kontsulta moduan parte hartzen dute.

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte (EHIGE) da Euskal Eskola Publikoaren baitan ordezkari handiena duen erakundea [16]. Federatutako 500 IGE baino gehiagorekin. EHIGEn barnean daude, Baikara, BIGE, Denon Eskola, Gipuzkoako Eskola Txikiak eta Ikasbi federazioak. Euren webgunean esaten dutenez, Euskal hezkuntza sistemaren oinarritzko ardatz egituratzaile izango den eskola publiko euskalduna, kalitatezkoa, inklusiboa, ekitatiboa, demokratikoa, laikoa, berritzailea eta solidarioa defendatzen du EHIGEk.

Komunitateak, familiak eta eskolak

Hezkuntza-munduarekin harremana duten sektoreen parte-hartzea hiru kontseiluren lanaren bidez ikusiko da ondoren. Batetik, Estatuko Eskola Kontseiluaren bidez, bestetik, Euskadiko Eskola Kontseiluaren bidez eta bestetik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren bidez.

Estatuko Eskola Kontseilua (Consejo Escolar del Estado)

(<https://labur.eus/8FfSM>) [17]. Hezkuntza munduarekin erlacionatutako sektoreen parte-hartze organoa da. Hezkuntzan eskubidea arautzen duen Lege Organikoarekin sortu zen 1985ean. Bere esparrua Estatu osora hedatzen da. Kontseiluak, gainera, gobernuari aholku eta proposamen lan bat garatzen dio hezkuntza sistemaren alderdi desberdinei dagokienez. Estatuko Eskola Kontseiluak, erkidegoekin batera eta eskolen bidez, kontsultak egiten dizkie familiei, euren parte-hartzea zelakoa den jakiteko. Galdera hauek zein diren aztertzea oso garrantzitsua izan daiteke hainbat ikerketa planteatzeko (ikus <https://labur.eus/6wr4g>). Bestalde, Estatuko Eskola Kontseiluaren webgunean hainbat argitalpen aurkitu daitezke; begira adibidez, urtero egiten diren txostenak: <https://www.educacionyfp.gob.es/mc/cee/publicaciones/informes-del-sistema-educativo.html>

Euskadiko Eskola Kontseilua [18]. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusia duten giza eragileek parte hartzeko organo goren da. Zereginak hauek dira:

-Hezkuntza komunitatearen parte hartzea ahalbidetzea.

-Hezkuntzaren gai nagusiez (lege-proiektuak, dekretuak, planak...) nahitaez kontsultatua izatea.

-Irakaskuntzarekin zerikusia duten gaietarako proposamenak egitea hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailari.

-Euskadiko hezkuntzaren egoera ebaluatzea eta kasuan kasuko txostena landu eta argitaratzea.

-Estatuko eta autonomia erkidegoetako eskola kontseiluaren batera urteroko topaketan parte hartzea, bai eta estatuko eskola kontseiluan ere. Begiratu daitezke adibidez 2018ko Jardunaldiak [19].

Nafarroako Eskolako Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia [20]

Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazioak ukitzen dituen gizarte sektore guztiendako kontsulta, parte-hartze eta aholkularitzarako organo gorena da. Webgune honetan aurkitu ditzakezu Nafarroako ikastetxeetan aurrera eramaten diren berrikuntza proiektuak, *Eskola eta Amarauna* monografikoak, IDEA aldizkariak, *Irakasleen profesioa European argitalpena*, etab.

Begiratu kontseilu hauek dituzten aldizkari eta argitalpen interesgarri hauek (6. taula).

6. Taula: Kontseiluen aldizkariak eta argitalpenak

<p>Participación educativa</p>	<p>https://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/cee/publicaciones/revista-participacion-educativa.html</p> <p>Ezaugarriak: parekideen arteko aldizkari zientifiko bat da, elektronikoki editatua eta Estatuko Eskola Kontseiluak argitaratua. Bere oinarriko helburua garapenari eustea eta laguntzea da. Estatuko Eskola Kontseiluaren Osokoak bere "Txostenaren egoerari buruzko txostenean" jasotzen ditu Hobekuntza Proposamenak"; bere helburua, maila zientifiko eta akademiko altua uztartzea da, orientazio tematikoa duena eta hezkuntza komunitatearentzat interes handiena duena. Hartzaileak, komunitatea eta Hezkuntza Zientzien komunitate zientifikoa eta hezkuntza-administrazioak dira.</p>
<p>Euskadiko Eskola Kontseilua</p>	<p>https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/otros-informes-y-publicaciones</p>
<p>Idea, Eskola eta amarauna monografikoak</p>	<p>https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web/1/eu/fitxeroak-2/idea-aldizkaria/ Nafarroako Eskola Kontseiluaren aldizkariak Euskaraz <i>Eskola eta amarauna</i> monografikoak ditu (ikus adibidez 2019.eko 51. alea https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web/1/wp-content/uploads/2019/04/CEN_idea_51.pdf)</p>

1.5. Erreferentzia bibliografikoak

[1] GRAÑERAS, M. ETA PARRAS, A. *Orientación educativa: fundamentos teóricos, modelos institucionales y nuevas perspectivas*. Madrid: Ministerio de Educación, Política Social y Deporte, 2008. Eskuragarri: <https://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/61923/00820082000250.pdf?sequence=1>

[2] SÁNCHEZ, M. F. La orientación en España. Despegue de una profesión. *REOP*, 2010, 21 zkia. 2, 231-239. Eskuragarri: <http://revistas.uned.es/index.php/reop/article/view/11>

[3] REQUENA, A. La organización del sistema de orientación educativa y profesional en España en las Administraciones educativa y laboral 2015 [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://labur.eus/0rNLO>

[4] JUNTA DE ANDALUCÍA. Orientación educativa [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://labur.eus/6yzMe><https://labur.eus/6yzMe>

[5] ORIENTASARE. Orientatzailearen funtzioak [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/site/orientasare/orientatzailearen-funtzioak>

[6] BERRITZEGUNEAK [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <http://www.berritzeguneak.net/>

[7] 40/2009 DEKRETUA, OTSAILAREN 17KOA [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2009/02/0901048a.pdf>

[8] 2019/DEKRETU FORALA. [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/decreto_foral_actualizacion_y_funcionamiento_creena.pdf

[9] NHBBZ/CREENA [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/atencion-a-la-diversidad>

[10] ROMAGNOLI, C., ETA GALLARDO, G. (2007). Alianza Efectiva Familia-Escuela: Para promover el desarrollo intelectual, emocional, social y ético de los estudiantes [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: https://www.academia.edu/3606455/Romagnoli_C._and_Gallardo_G._2007_.Alianza_Efectiva_Familia_Escuela_Para_promover_el_desarrollo_intelectual_emocional_social_y_%C3%A9tico_de_los_estudiantes._Documentos_Valoras_UC

[11] HIK HASI. Familia eta eskola. Bi instituzio konplexu [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100103/familia-eta-eskola-bi-instituzio-konplexu>

[12] FEVAS Gidak [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://fevas.org/eu/guias>

- [13] CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO. Las relaciones entre familia y escuela. Experiencias y buenas prácticas. Encuentro de Consejos Escolares Autonómicos y del Estado. [online] Madrid. Eskuragarri:
<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:e30d7429-ebb9-4830-bdd2-09816fb30fe3/23encuentroceaedocumentobase2015-pdf.pdf>
- [14] GRANT, L. Developing the home-school relationship using digital technologies. *Futurelab*, 2010. Eskuragarri:
<https://www.nfer.ac.uk/publications/FUTL13/FUTL13.pdf>
- [15] GURASO ELKARTEAK [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri:
<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:c60ac608-1cc3-49fc-9605-ad20f35b0627/estudioparticipacion.pdf>
- [16] EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA. EHIGE. [online].
<https://www.ehige.eus/eu/argitalpenak/#>
- [17] ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUA (Consejo Escolar del Estado) [online]. [Kontsulta: 2022-02-07]. Eskuragarri: <https://labur.eus/8FfSM>
- [18] EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA. [online].
<https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/>
- [19] EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA [online]. 2018ko Jardunaldiak. [Kontsulta: 2022-04-27]. Eskuragarri: <https://labur.eus/U7tTf>
- [20] NAFARROAKO ESKOLAKO KONTSEILUA. [online]. [Kontsulta: 2022-04-27]. Eskuragarri:<https://labur.eus/PTBWK>